

# Osoko bilkura

Donostian, 2013ko urtarrilaren 25ean

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,  
Videgain, Xarles, euskaltzainburuordea,  
Kintana, Xabier, idazkaria,  
Aleman, Sagrario, diruzaina,  
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,  
Coyos, Jean-Baptiste, *Battittu*, Jagon  
sailburua,  
Azkarate, Miren,  
Davant, Jean-Louis,  
Goenaga, Patxi,  
Haritschelhar, Jean,  
Iñigo, Andres,  
Irazu, Jose, *B. Atxaga*,  
Lakarra, Joseba,  
Larre, Emile,  
Lizundia, Jose Luis,  
Oihartzabal, Beñat,  
Peillen, Txomin,  
Sagarna, Andoni,  
Salaburu, Pello,  
Sarasola Ibon,  
Toledo, Ana,  
Uribarren, Patxi eta  
Zalbide, Mikel

Erramun Osa, idazkariordea, Joseba  
Zabaleta, kudeatzailea eta Alfontso  
Mujika, zegozkien gaietan.

**Ezin etorriak eta ahalak:** Oñederra, Mi-  
ren Lourdes, ahala Aurelia Arkotxari; Sa-  
laberri, Patxi, ahala A. Iñigori; Torrealdei,  
Joan Mari, ahala A. Sagarnari; Zabaleta,  
Patxi, ahala A. Iñigori. M. Zalbide euskal-  
tzainak hasierako gaietan esku hartu du,  
gero, tarte batean atera behar izan duenez  
gero, ahala A. Urrutiari eman dio.

Batzarra goizeko 09:30ean hasi da Do-  
nostiako Diputazioaren Jauregian, ez-  
kerreko zutabeen ageri diren euskal-  
tzainak bertan direla.

Hasieran euskaltzainburuak etorririko  
euskaltzain guztiak agurtu ditu, ondo-  
ren batzarrari hasiera emateko.

## 1. Ageriko bilkurako (2012-09-28) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz

E. Osak aurkeztu du, ez da oharrik jaso  
eta, beraz, bilera-agiria ontzat eman da.

## 2. Ageriko bilkurako (2012-10-05) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz

E. Osak aurkeztu du, eta oharrik jaso ez denez, ontzat eman da.

## 3. Osoko bilkurako (2012-12-14) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz

Ez da oharrik jaso eta, idazkera eta puntuazio zuzenketa batzuk eginda, bilera-agiria ontzat eman da.

## 4. Exonomastika

**4.1. Astronimia (II): sateliteen izenak onartu, hala erabakiko balitz.** Hitza J. L. Lizundiari eman dio euskaltzainburuak. J. Haritschelharren ohar bat heldu dela azaldu du, proposaturiko hitzak kasu batzuetan c-rekin eta beste batzuetan k-rekin zergatik transkribatu diren galdetuz. A. Mujikak erantzun dio txosten idatzi batekin. Hor, mitologia klasikoaren izendegiaren arabera jokatu dela argitu zaio, greko eta latin hitzetarako transkripzioa bera erabiliz, eta **k** grafia erabili dela **Kalisto**, **Kupido** edo **Karon** hitzetan bezala. Ordea, beste izen batzuetan, hala nola **Caliban**, **Cordelia** edo **Cressida** modukoak, William Shakespeareren eta Alexander Poperen idazlanetako pertsonaien izenak hautatu dira, eta beraz, hor ez dago izen mitologikoen jatorririk, eta halaxe utzi dira. I. Sarasolak uste du bide zuzena erabili duela batzordeak.

A. Sagarnak, horren gainean, pertsonak deitzeko modutik helduriko izenek batzuetan kasuistika zaila agertzen dutela gogoratu du, eta lehen ere horrelako kasuak izan ditugula azpimarratu du.

Astronomiako hitz batzuk **v** ala **b**-az idazten diren jakiteko, P. Uribarrenek izen horiekin zerrenda bakarra aurkeztea proposatu du. A. Mujikak halaxe egingo dela esan du. J. L. Davantek ere zailegi deritzo kasu bakoitzaren azalpena eman beharri. J. Haritschelharrek bilera-agirian bere desadostasuna espresuki agertzea eskatu du, euskaraz hitz horiek guztiak **b** grafiaz nahiago lituzkeelako.

B. Atxagak ere iruzkina egin du: ekonomian diruaren balioaz flotazioa egoten den bezala, era berean, bere ustez, hizkuntzetan ere gorabeherak izaten baitira nazioarteko izen batzuen grafian.

Euskaltzainen oharrak eta iritziak jaso ondoren, Exonomastikako batzordeak «Astronimia (II): sateliteen izenak» txostenean aurkezturiko zerrendak ontzat hartu dira.

**4.2. «Astronomia (III) izarren eta konstelazioen izenak» aurkeztea.** Zerrenda honen aurkezpen laburra X. Kintanak egin du, eta ondoren hitza A. Mujikari pasatu dio. Beronek azalpen xehatua eman du historian zehar izarrei izena emateko tradizio ezberdinez: Greziakoaz, Indiakoaz, arabiarraz, etab. Gurean XVI. mendean hasi zen euskal tradizioa ere kontuan izan da: Leizarraga, Larramendi, Arana-Goiri, Ibiñagabeitia, Berazadi... eta latinezko izenak eta horien euskarazko ohiko itzulpenak gogorarazi ditu. J. L. Lizundiak A. Mujikak egindako lan bikaina goraiatu du, eskainiriko datu argigarri ugari eta zehatzengatik.

P. Goenagak proposamenetan forma bi ematen direla ohartarazi du, latinezkoa eta itzulua, eta beti hola jokatu behar den galdetu du. Hor idazkien maila jasoa edota dibulgaziokoa kontuan hartu beharko lirатеkeela azaldu dio A. Mujikak. Bestalde, latinezko izenak euskaraz nola irakurri beharko lirатеkeen galdetu du. I. Sarasolak uste du irakurtzeko eraz aukera eta tradizio ezberdinak daudela, eta oraingoz horiek libre utzi beharko lirатеkeela.

X. Videgainek izen horietako batzuk Atlasean ere badirela gogoan hartzea eskatu du, eta horietan inoiz kontraesan batzuk gerta daitezkeela biologiako eta astronomiako izen arrunt batzuen artean: *arrabio* eta *lupu* modukoekin, adibidez, batzuetan ‘salamandra’tzat eta beste batzuetan ‘eskorpioi’tzat hartzen direlako.

Aurkezturiko idatziari oharrak otsailaren 15rako bidaltzea eskatu da.

## 5. Euskaltzain urgazleen proposamena –batzordekideei dagokienez– aurkeztu

2012ko abenduaren 14ko Osoko Batzarrean jada finkaturikoari jarraituz, Euskaltzaindiko urgazle berriak izendatzea aztertu zuen Zuzendaritzak. Horrela, 2005etik Euskaltzaindian lankide eta batzordekide izandakoak aztertu eta, horietatik oraindik izendapenik gabe zeudenekin, zerrenda prestatu zuen, lagun horiek, beren batzordeburuekin mintzatu eta adostu ondoren, urgazle-hautagaitzat proposatzeko. Guztira 14 pertsona izan dira. E. Osa idazkariordeak azaldu duenez, hautagaiak, banan-banan, beren batzordeburuaren onespina izan dute. Bestetik, proposaturiko lagun guztiek ere hautagai izateko onspina emana dute. Euskaltzainei guztien curriculumak banatuko zaizkie. Orain aurkezten den zerrenda otsaileko Osoko bilkuran onartzeko da. Zerrenda osoa irakurri da, bakoitzaren lotura Euskaltzaindiarekin noizdanikoa den azalduz.

J. L. Lizundiak eragozpen batzuk adierazi ditu, zerrenda horretan exonomastikako proposamena falta delako. Oraingo zerrendan agertu ez arren, hori ez dagoela ahanztirik erantzun dio A. Urrutiak, orain ekarri den zerrendaz gainera, aurreko bilkuran

jada garbi utzi zenez, irail-urrian, Zuzendaritzak beste zerrenda osagarri bat aurkeztuko duelako, horrelako proposamenak bertan sartzeko. Gainera, Exonomastika batzordekiderik ez dago egoera horretan, aholkulariak baino, eta, abenduaren hamalauko Osoko bilkurak erabaki zuen batzordekideak lehenestea deialdi honetan.

J. Haritschelharrek hitza eskatu du, Isaak Atutxaz mintzatzeko. Ez daki zenbat denboraz egon den kide, baina urgazle-izendatzea merezi duela uste du. Berori ere bigarren txandarako utziko dela erantzun dio Euskaltzainburuak. A. Urrutiak azaldu duenez, aurreko Osoko bilkurak erabaki zuenaren arabera egin du Zuzendaritzak oraingo proposamena, alegia batzordekide izan eta batzorde lana epe jakin batetik aurrera egin dutenena. Bestalde, hautagaien zerrenda hau lankidetzaren denboraren arabera eratua eta adostua izan den aldetik, bera onartzeko bozketa multzo osoari egitea proposatu du euskaltzainburuak, banan-banan jardun gabe. Horrela onartu da eta, beraz, botazioa otsailaren 22an egingo da, Osoko bilkuran, zerrenda bakar batean eta Zuzendaritzako kide guztiek zerrenda bakar hori izenpetu dutela.

## 6. Euskaltzaindiaren Batzordeen, Lantaldeen, Egitasmoen eta Zerbitzuen 2013. urteko planak

Idazkariordeak azaldu duenez, aste honetan txertatu dira jasoriko azken plangintzak. Ondorioz, Zuzendaritzak ez du plana aztertzeo aukerarik izan. Horiek horrela, puntu hau datorren Osoko bilkurara, otsailaren 22kora, atzeratzea proposatu da. Halaxe egitea erabaki da.

### 7. 2013. urteko aurrekontuak, informazioa eman

Joseba Zabaleta Kudeatzaileak, ahoz, 2013ko aurrekontuei buruzko azkeneko berriak eman ditu. Azken informazioen arabera, Gipuzkoako Batzar Nagusiek Euskaltzaindiari 100.000 euro gehiago ematea erabaki dute, EAJ, Bildu eta PSE alderdiek adosturiko erdibideko zuzenketa baten bidez. Araban alderdien arteko elkarriketak ez dira amaitu, eta beraz, ikuskizun dago zer gertatuko den. Bizkaiak iazko kopurua mantenduko luke eta Nafarroak ere iazkoaren antzeko ekarpena egingo duela dirudi. Estatuak, aldiz, % 50 gutxiago bideratuko dizkio Euskaltzaindiari. Iparraldeaz den bezainbatean, ez dago informazio berririk. EAEko Aurrekontu Orokorrekin zer gertatuko den ez dakigu, murrizketak egon daitezke, prentsan zabaldurikoaren arabera. Nolanahi ere, hainbat zehaztapen falta direnez, itxaron egin beharko da.

Euskaltzainburuak 2012ko itxiera-egoeraz galdetuta, J. Zabaletak erantzun du ez dagoela defizitik eta ez duela uste datozen hiletan ere bankuko kontuetan mentsa izango denik, oraindik gelditzen den diruarekin martxora arte jarduteko finantzia-

zioa baitago. Ordutik aurrera, diru berririk ez baletor, kreditu-lerroak baliatu behar-ko lituzke Euskaltzaindiak.

## 8. Eskuartekoak

### 8.1. Hilberri txostenak

Gaur 12:00etan hasita, Gipuzkoako Foru-Aldundiaren Jauregiko tronu-aretoan, iaz zendu ziren Euskaltzaindiko hiru kideen omenez, Jose Luis Alvarez Enparantza 'Txillardegí' eta Josu Arenaza Lekerikabeaskoa euskaltzain urgazleen eta Karmele Esnal euskaltzain ohorezkoaren hilberri-txostenak irakurriko direla gogorarazi zaie euskaltzainei. Ekitaldia nolako protokoloaz egingen den ere azaldu du idazkariordeak.

### 8.2. Gaur euskaltzainek jasoko dituzten liburuak

Aiora Jaka Irizarren *Itzulpenari buruzko gogoeta eta itzulpen-praktika Joseba Sarrionaindiaren lanetan* (Iker, 28). Euskaltzaindiaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko lankidetzaz hitzarmenaren emaitza da. Liburu hau urtarrilaren 17an aurkeztu zen Bilbon, Unibertsitatearen Abandoibarrako eraikinean. Ekitaldi berean, III. Koldo Mitxelena sariak banatu ziren.

Txomin Peillenen *Jon Mirande, olerkaria* (Euskaltzainak bilduma). Liburu hau Euskaltzaindiaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren lankidetzaz hitzarmenaren ondorioz argitaratu da. Obra hau Maulen aurkeztu zen urtarrilaren 19an, udal-etxean.

### 8.3. Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuaren, Blanca Urgellen, urriaren 19ko Agindua dela eta, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoaz azken berriak

Eusko Jaurlaritzako aurreko Kultura sailburuak 2012ko EAEko Aurrekontu Orokorren Legean jasoriko eta Euskaltzaindiari bideratu beharreko 190.000 euro atxiki zituela-eta, Euskaltzaindiak aurkezturiko errekurtsoa edo helegitea Blanca Urgell Kultura sailburuak ezetsi egin zuen. Horiek horrela, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko erabakia hartu zuen Zuzendaritzak 2012ko azaroaren 7an, Oiartzunen eginiko bilkuran. Ondorioz, euskaltzainei jakinarazten zaie EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak Euskaltzaindiak aurkezturiko errekurtsoa tramitera onartu duela 2013 urtarrilaren 23an. Hor zerbait erabaki bezain laster, euskaltzainei jakinaraziko zaie.

### 8.4. Eusko Ikaskuntzaren eta Euskaltzaindiaren arteko bileraren berri

Eusko Ikaskuntzako Zuzendaritza izendatu berriak gure Akademiarekin elkarren arteko harreman aspaldian motelduak berriz indartu nahi lituzkeela adierazita,

2013ko urtarrilaren 10ean Euskaltzaindira bisita egin eta euskaltzainburuarekin, idazkariarekin, idazkariordearekin eta kudeatzailearekin bilera bat egin zen. Iñaki Dorronsoro presidenteak, Rosa Miren Pagola buruordeak eta Arrate Arín zuzendariak parte hartu zuten, Eusko Ikaskuntzaren izen eta ordezkaritzan. Bileran, beren proiektuak azaldu eta Euskaltzaindiarekin lankidetzeta-hitzarmen bat sinatzeko gogo adierazi zuten. Bilera horretan, erakunde bien artean inoiz izandako arazoak hizpide izan zituen A. Urrutiak, batez ere, Euskaltzaindiak, oinarritz bere-berea duen arloan, hots, hizkuntzarenean, besteek deus esan gabe, izandako parte hartzeagatik. Euskaltzainburuak, gainera, argiro adierazi zien, oinarritz, begi onez dakusala Euskaltzaindiak beste kultura erakundeekin batera jardutea, baina, nori bere esparru propioa hertsiki errespetatzeko baldintzapean. Ez zen inolako erabakirik hartu eta, Osoko bilkuran gaia azaldu eta eztabaidatu ondoan, berriz ere beste bilera bat egitea pentsatu zen, xede konkretuagoetara iristeko.

B. Atxagak hitza eskatu eta berak Eusko Ikaskuntzarekin izandako harreman eta esperientzia txarrak azaldu ditu, erakunde horren antolamendu desegoki eta trake-tsagatik.

Ondoren J. L. Lizundiak hitz egin du. Bere ustez bidezkoa da Euskaltzaindiak Eusko Ikaskuntzaren Zuzendaritza berriarekin harremanak leundu eta normaldu nahi izatea, baina aurretik ongi gogoratu behar da bai Mitxelenaekin eta bai Villasanterekin ere oso harreman txarrak izan zituztela erakunde horretakoek. Argi gelditu behar zen Literatura batzordea Euskaltzaindiarena zela. Tx. Peillenek ere esperientzia txarra ukan zuela adierazi zuen, berak heriotzaren inguruko errituei buruz lan bat euskaraz bidali eta, aurretik ezer erran gabe, erdaraz publikatu zioten eta.

A. Arejitaren ustez oso urrun dago gaurko Eusko Ikaskuntza gerra aurreko erakunde hartatik. Halere, gauzak hobetuz gero, interesgarri litzateke elkarren arteko harremanak berriz izatea. J. Haritschelharrek esan du Abadiaren inguruan ere antzeko problemak izan zituztela Hendaian. Bere ustez Euskal arloa Euskaltzaindiarentzat utzi eta Euskal Herriko erdal (frantses-espainol) literaturak aztertzea nahi dute. Dena den, Iparraldeko Eusko Ikaskuntzako kideekin ongi konpontzen dela aitortu du.

Beste zenbait euskaltzainen iritziak ere entzun ondoren, guztiak bat etorri dira, badela guztientzako lekua, eta garai bateko tirabirak alde batera utzita, komenigarria dela bi entitateen arteko lankidetzeta sustatzea, betiere, Euskaltzaindiari euskararen arautzea eta euskarazko literaturaren ikerketa errespetatuz gero. Oinarri horren gainetik, ikerketa arlo batzuetan, hizkuntza, soziolinguistika edo literaturan,

adibidez, badukete elkarlanerako eremu zabala erakunde bien artean lantzeko. Baldintza horiek gordez gero, eta nori berea aitortu ondoren, ez legoke gaizki aldizka elkarrekin lanean jardutea.

Areago, Euskaltzainburuak galdetu du ea oinarri horiek aintzat hartuta eta baikoitzaren egitura eta eginkizunak gordez, ondo ikusten den Zuzendaritzak Eusko Ikaskuntzarekin elkarlanerako lankidetzaren hitzarmena gauzatzeko urratsak ematea. Ontzat eman da eta hala egingo da.

**8.5. Euskaltzaindikoko Zuzendaritza Eusko Legebiltzarrean.** Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak Gasteizen, 2013ko urtarrilaren 22an, Eusko Legebiltzarrean egindako bilkuraren berri eman du Euskaltzainburuak. Era berean, Bakartxo Tejeria andreak, Eusko Legebiltzarreko presidente izendatu berriak, eginiko harrera ona eta berarekin izandako elkarrizketa nola joan zen azaldu du. Ekonomian pairatzen den krisi larria gorabehera, Eusko Legebiltzarra Euskaltzaindiari laguntza ematen ahalginduko dela adierazi zuen, erakunde bien arteko harreman onak aurrerantzean ere bultzatzeko asmoa agertuz. Euskaltzainburuak harrera eta orain arteko laguntza eskertu zizkion eta orain arteko lankidetzaren bidean jarraitzeko borondatea adierazi ere bai.

#### **9. Euskaltzaindiak Joseba Lakarrari doluminak eta beronen eskerrak**

Joseba Lakarra euskaltzainaren amaren heriotza dela eta, euskaltzainburuak Akademia osoaren izenean doluminak adierazi dizkio. Arratzuko euskaltzainak, halaber, eskerrak eman dizkio Akademiari bere amaren hileta-egunean herriko elizan izandako partaidetasun eta erakutsiriko atsekabeagatik.

#### **10. Azken ordukoak**

Hurrengo bilkura. Hurrengo Osoko bilkura otsailaren 22an egingo da, goizeko 10:00etan, Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan.

Eta besterik ez dela, Osoko bilkura amaitutzat eman da 11:45 direnean. Bilkuraren ostean, Ageriko bilkura hasi da eguerdiko 12:00etan.

Andres Urrutia Badiola,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,  
idazkaria

# Ageriko bilkura

Donostian, 2013ko urtarrilaren 25ean

Hilberri txostenak

Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian, eguerdiko 12:00etan, Euskaltzaindiak, aurreko urtean hil diren Karmele Esnal ohorezko euskaltzainaren, eta Jose Luis Alvarez Enparantza «Txillardegi» eta Josu Arenaza euskaltzain urgazleen hilberri-txostenak irakurtzeko, Ageriko bilkura egin du.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Xarles Videgain buruordea, Xabier Kintana idazkaria, Sagrario Aleman diruzaina, Adolfo Arejita Iker sailburua, Jean-Baptiste «Battittu» Coyos Jagon sailburua, Miren Azkarate, Jean-Louis Davant, Patxi Goenaga, Jean Haritschelhar, Andres Iñigo, Jose Irazu «Bernardo Atxaga», Joseba Lakarra, Emile Larre, Jose Luis Lizundia, Beñat Oihartzabal, Txomin Peillen, Andoni Sagarna, Ibon Sarasola, Ana Toledo, Patxi Uribarren eta Mikel Zalbide.

Ohorezko euskaltzainak: Koldo Artola.

Euskaltzain urgazleak: Joxe Austin Arrieta.

Erramun Osa idazkariordea eta Joseba Zabaleta kudeatzailea.

Euskaltzaindiko langileak: Lutxi Alberdi, Jon Artza, Maixa Goikoetxea eta Amaia Okariz.

Jose Luis Alvarez Enparantza, Karmele Esnal eta Josu Arenazaren hainbat senide.

Mahaiburuan, Andres Urrutia euskaltzainburuarekin batera, Martin Garitano Gipuzkoako ahaldun nagusia ere izan da.

*Euskera*. 2013, 58, 1. 172-175. Bilbo  
ISSN 0210-1564

Ekitaldian zehar, musika izan dute lagun hurreratu direnek. Izan ere, Pier Paul Berzaitz eta Joxan Goikoetxea musikariek ere hartu dute parte omenaldian eta Bitoriano Gandiagak, Beñat Sarasolak eta Xabier Letek idatzitako poema musika-tuak interpretatu dituzte. Nemesio Etxanizen eta Maurice Ravelen kanta bana ere jo dute.

Andres Urrutia euskaltzainburuak hurreratu diren guztiei ongi etorria eman die, bereziki gaurko ekitaldian gogoan hartuko diren euskaltzainen senideei. Ondoren, ekitaldiaren aribidea aurkeztu du. Gaurko Ageriko bilkuran, honako hilberri txosten hauek irakurri dira:

- Jose Luis Alvarez Enparantza «Txillardegi» (1929-2012) euskaltzain urgazlea. Jean-Louis Davant euskaltzain osoak eta Joxe Austin Arrieta euskaltzain urgazleak txosten bana irakurri dute.
- Karmele Esnal (1932-2012) ohorezko euskaltzaina. Miren Azkarate euskaltzain osoak irakurri du.
- Josu Arenaza (1930-2012) euskaltzain urgazlea. Xabier Kintana euskaltzain osoak irakurri du.

Jean Louis Davant-ek gogora ekarri du Txillardegi ez zutela inoiz euskaltzain oso izendatu, eta aitortu zuen hutsune larria izan zela «euskara batuaren aita euskaltzain osoen artean ez egotea». Izan ere, Zuberoako euskaltzainak meritu hori aitortzen dio, hurbiletik jarraitu baitzuen Txillardegi zenak batuaren alde egindako lana, Ipar Euskal Herrian abiatuta.

Euskaltzale talde batek landutako proposamenak 1964ko Baionako Biltzarrean taxutu zirelarik, «hor onartu ziren euskara batuari buruzko lehen neurriak: grafia eta deklinabidea bereziki, baita oinarritzko hiztegi labur bat ere. Aitzineko bilkuretan, aditza ere landua genuen, baina hori Baionako Biltzarrak ez zuen onartu, adostasun osorik ez baitzegoen biltzarkideen artean: Txillardegik batuko aditza gipuzkeran oinarritua zuen, baina lapurterak itzal handia bazuen oraino, euskal literaturaren historian ukan zuen toki handiari esker. Haatik berantago, Euskaltzaindia Txillardegiren ildotik joango zen aditzari dagokiola ere». Handik lau urtera Txillardegik Arantzazura igorritako txostena ia osorik onartu zela nabarmendu zuen.

Hortaz, J. L. Davanten aburuz, «Txillardegiren obra nagusia, euskara batuaren sorrerakoa da», hain zuzen ere, bere nortasunarekin bat datorrena. Aitzindaria izan baitzen bizitzan hainbat arlotan: «Frankismo denborako abertzale berria, sozialista librea, Iparraldekoen lagun goiztiarra, idazle polifazetikoa, bide berrien urratzailea».

Ondoren, omenduaren testu batzuk aukeratu eta aurkeztu ditu Joxe Austin Arrietak bere mintzaldian, hilberri txostena paratzean, haietan argi asko islatzen baita profeta, filosofo zein olerkari lanetan darion estiloa: «Idazle grinatsurik inor izatekotan, Jose Luis dela horretan txapeldun. Bere estiloaren ezaugarririk behar bada nabariena horixe du: dena ematen duela denean». Baita politika-eragile bezala ere.

J. A. Arrietak esan duenez, «osorik euskarari emana» bizi izan zela eta oraindik ere bizirik dirauela Txillardegik, utzi duen lan emankorrari esker. Horixe da, hain zuzen ere, gerora geratuko den ekarpena. Eta horregatik, Euskaltzaindia eta Txillardegi lotzen dituen «tirabira mingarrien zauria behar bezala sendatu eta ixteko» garaia delako ustea du, eta bide batez hari zor zaion guztia nolabait ordaintzeko. Horretarako, proposamen zehatza bota zuen: «Euskaltzaindiari, Unibertsitateari, Jaurlaritzari, Aldundiari, Udalarari eta legokiekeen instantzia guztiei helarazi: «Txillardegi Katedra» edo «Txillardegi Ikerkuntza Gunea» edo, sinpleki, «Txillardegi Enea» deituko litzatekeen proiektu bat diseinatzea,...». Hori euskaltzain oso izan ez zen «Euskara-Zain Osoa» gogoan izateko.

Segidan, Miren Azkarate euskaltzainak Karmele Esnalen hilberri txostena irakurri du. Bere iritziz, 1955etik 1997. urtera arte, 42 urteko ibilbide luzean andereñoen lana inork gutxi bezala hezurramitu zuen emakumea da Karmele Esnal. «Andereño», hala zen Esnal, Andereño Karmele. Bere kemena, bere ametsak eta bere lana gogora ekarri ditu M. Azkaratek: «Datu hotzen atzean bizitza emankorra dago, egitasmo bati eskainitako bizitza, irakaskuntzan 42 urte jardutea baino askoz harago doan bizitza».

Esnalek, eta bere lankideek irakasletzan egindako lana aski ezaguna da gaur egun, eta euskal gizartean badu aitortza, baina hasierak ez ziren errazak izan. Zailtasunak zailtasun baina, frankismo garaian lan egin zuten andereño guztien irakaskuntzaren kalitatea aldarrikatu du M. Azkaratek, baita gugan utzitako ondarearen balioa ere. «Gerora –esan du– jakin dugu nolako ondarea pasatu diguten ere: abesti eta olerkietan gerraurrekoen ahalegina, Euskaltzaleak mugimenduaren ondarea zegoen, eta Iparraldea. Euskal Herria, iragana eta oraina».

Xabier Kintanak Josu Arenazari eskainitako soaldian, haren bizitzaren joan-etorrien kontu emateaz batera, bere izaeraren ezaugarriak eta egindako hainbat kultura- eta gizarte-lan azpimarratu ditu, egokitu zitzaion askatasunik gabeko garaian erakutsi zuen inplikazioaren lekuko. Borroka sindikalean izan zuen protagonismoa –ELA sindikatua sortzen lagundu zuen– eta euskarari egin zion ekarpena ere gogora ekarri ditu.

X. Kintanaren arabera, Arenazak bizkaieraren defentsa sutsua egin zuen. Era berean, hizkuntzaren garbitasunaren alde lanean ekin zuen atsedetik gabe –«euskal tradizioko berba jatorragoak aldarrikatzen zituen eta, euskarak bere erroetatik hitz berriak sortzeko daukan eskubidea ere»– eta hastapenetako euskara batuaren erai-kuntzari egin zizkion kritikak garapen prozesua hobetzen lagundu zuten. Izan ere, «Behartu egin gintuzten batasunaren aldekoak gauzak sakonago aztertzer», X. Kintanaren arabera. Hain zuzen ere, gaur egun ezagutzen dugun euskara «gauza-tzen eta aberasten lagundu zuten eragileetako bat izan zen».

Martin Garitano Gipuzkoako ahaldun nagusiak, aurreko urtean hil diren euskaltzainak gogoan hartu ditu, eta, bakoitzak bere arloan edota euskararen mesedetan egindako ekarpenak zein merezimenduak nabarmendu ditu. Ondoren A. Urrutiak hitza hartu du eta gure aurrekoek, joan direnek, bakoitzak bere arloan, eginiko ekarria gogoan hartu du, bai eta euskarak une zail zein errazagoetan izaniko aurre-rabideak halakoei zor diela azpimarratu ere.

Bukatzeko, Pier Paul Berzaitz eta Joxan Goikoetxea musikarien kanta batekin amaiera eman zaio ekitaldiari, 13:40ak direnean.

Andres Urrutia Badiola,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,  
idazkaria